



UDAL BANDOA: SAN JOAN BEZPERAKO SUAK DEBEKATZEA ARAMAN

Aramako Udalak herritar guztiei jakinarazten die:

Euskalmeten iragarpenen arabera, hurrengo egunetan tenperatura oso altuak espero dira, eta **Alarma Gorria** ezarri da muturreko tenperatura altuengatik ekainaren 22, 23 eta 24rako.

Gainera, **Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak** erakunde eskudunei gomendatu die egoera aztertzea eta, hala badagokio, San Joan suak ez piztea baso-masetatik hurbil dauden eremuetan.

Gomendio horiei jarraituz, eta egoerak prebentzio-neurri bereziak hartzea eskatzen duenez, herritarren segurtasuna bermatzeko eta sute-arriskua prebenitzeko helburuarekin, Aramako Udalak honako erabakia hartu du:

DEBEKATUTA GERATZEN DA SAN JOAN BEZPERAKO SUAK EGITEA ARAMAKO UDALERRI OSOAN

Debeku hau udalerriko eremu guztietan aplikatuko da, bai espazio publikoetan bai pribatuetan: kaleetan, plazetan, landa-eremuetan, baserri inguruetan, lorategietan eta bestelako gune irekietan.

Mokadutxoa ere bertan behera:

Era berean, egoeraren larritasuna eta segurtasun-arrazoiak direla medio, bihar arratsalderako aurreikusita zeuden San Joan bezperako ekitaldiak bertan behera uzten dira, bai mokadutxoa, bai panpina egiteko ekintza.

Baldintza meteorologikoek ahalbidetzen badute, bihar egitekoak ziren ekitaldiak datorren igandera atzeratuko dira, eta **San Pedro bezpera ospatuko dugu**, sua, mokadutxoa eta panpina egiteko ekintza egun horretan eginez (**ekainak 28, 20:00etan**).

Horren inguruko informazio gehiago datozen egunetan emango da.

Erabakia ulertuko duzuelakoan, eskerrik asko.

ZENTZUZ ETA ARDURAZ JOKA DEZAGUN!

Araman, 2026ko ekainaren 22an.

ALKATEA
Aramako Udala